C'est Noël
À CIBOURE



04/12 > 16/12

C'est Noël à Ciboure !

Lorsque les jours raccourcissent et que l'hiver s'installe, Ciboure ouvre une parenthèse chaleureuse où l'on aime se retrouver, partager et se laisser surprendre.

À l'approche des fêtes de fin d'année, la création artistique est plus que jamais au rendez-vous avec des propositions pour tous les âges. Musique, marionnettes, contes ou encore magie rythmeront ce temps fort comme autant d'invitations à voyager, à explorer des mondes réels ou imaginaires et à laisser libre cours à l'émerveillement.

Cette année, le voyage sera sans frontières : au fil des histoires, des images, des sons et des rencontres. De la petite enfance aux plus grands, chacun pourra trouver son chemin, prendre le temps de découvrir, de créer, de rêver ou simplement de partager un moment ensemble.

Alors, laissez-vous guider et venez faire escale à Ciboure pour célébrer Noël autrement : en famille, entre amis, et surtout avec une bonne dose de curiosité et d'imaginaire.

Eneko Aldana-Douat
Maire de Ciboure

Emilie Dutoya,
Adjointe en charge de la culture, du patrimoine et de la vie associative

Au programme

Mer. 02/12	14h	Atelier de création de lanternes de voyage	Médiathèque	FR
Ven. 04/12	18h30	Spectacle *La Grande Ourse* de la compagnie Oscar Fou	Espace polyvalent Guy Poulou	FR
Sam. 05/12	10h30	Escale gourmande	Espace polyvalent Guy Poulou	FR + EUS
Sam. 05/12	15h	Atelier *Offrir autrement*	Chapiteau	FR
Mer. 09/12	10h	Atelier *Mon lutin de Noël*	Chapiteau	FR
Mer. 09/12	15h	Atelier *Un Noël sous cloche*	Chapiteau	FR
Mer. 09/12	18h	Spectacle *Lâcher de magicien.ne.s* de la compagnie Sans Gravité	Chapiteau	FR
Jeu. 10/12	19h	Afterwork *Quiz des voyageurs gourmands*	Chapiteau	FR
Sam. 12/12	9h30	Les petites oreilles – Belarri ttipiak	Médiathèque	FR + EUS
Sam. 12/12	10h	Spectacle *SO* de la compagnie LagunArte	Espace polyvalent Guy Poulou	Sans parole
Sam. 12/12	15h	Atelier de création d'un carnet de voyage	Chapiteau	FR
Sam. 12/12	18h	Ciné-concert de l'Estudiantina	Chapelle du CIAP Les Récollets - Errekoletoak	FR
Dim. 13/12	10h-13h	Bibliomobile	Chapiteau	FR + EUS
Dim. 13/12	11h	Conte *Ce que la nuit éclaire* d'Aurore Soudieux	Chapiteau	FR
Mar. 15/12	19h30	Spectacle *PP Project* de la compagnie Les Involtes	Chapelle du CIAP Les Récollets - Errekoletoak	Sans parole
Mer. 16/12	10h	Atelier *Pimp ton pull de Noël*	Chapiteau	FR
Mer. 16/12	15h	Atelier *Mission Mars*	Chapiteau	FR
Mer. 16/12	17h30	Balade littéraire avec Libreplume	Départ devant le chapiteau	FR + EUS
Ven. 18/12	18h	Défilé de l'Olentzero	Départ port de Larraldenia	EUS

Des spectacles pour rêver et s'émerveiller



Vendredi 4 décembre à 18h30

LA GRANDE OURSE

COMPAGNIE OSCAR FOU (VIVONNE – 86)

Chansons espiègles pour petits et grands FR

Une Grande Ourse, c'est une constellation qui nous invite à lever les yeux vers le ciel et à partir très loin dans l'imaginaire. C'est aussi une figure protectrice, tendre et sauvage.
À travers des chansons espiègles et poétiques, Oscar Fou explore avec humour et délicatesse les grandes questions de l'enfance : les rêves, les peurs, les relations aux autres, l'amour ou encore notre lien au vivant.

Un concert à partager en famille, entre douceur, fantaisie et poésie.

En coréalisation avec l'Office Artistique de la Région Nouvelle-Aquitaine

- Espace polyvalent Guy Poulou
- Concert familial à partir de 5 ans
- Sur réservation



© Richard Sammut

OFFICE ARTISTIQUE RÉGION NOUVELLE-AQUITAINE



Mercredi 9 décembre à 18h

LÂCHER DE MAGICIEN.NE.S

COMPAGNIE SANS GRAVITÉ (TOULOUSE – 31)

Magie de proximité et poésie FR

Ils surgissent au milieu du public, coiffés de lampadaires lumineux et prêts à bouleverser notre perception du réel. Entre tours de magie de proximité, humour et poésie, les magicien.ne.s de la compagnie Sans Gravité transforment l'espace quotidien en un terrain de jeu où tout devient possible. Une déambulation interactive et surprenante qui nous invite à retrouver notre capacité d'émerveillement et à questionner, avec légèreté, ce que l'on choisit de croire.

- Chapiteau place du fronton
- Tout public
- Sur réservation





© Virginie Richard

Samedi 12 décembre à 10h

SO

COMPAGNIE LAGUNARTE (LA BASTIDE CLAIRENCE - 64)

Voyage musical et sensoriel au cœur du vivant Sans parole

Et si les paysages avaient une voix ? Avec SO, la compagnie LagunArte propose une expérience musicale et sensorielle où sons, voix, matières et mouvements dessinent un monde en perpétuelle transformation.
Entre montagnes, forêts et océans, petits et grands sont invités à un voyage sensible au cœur du vivant, où les êtres et les paysages se répondent et se transforment ensemble.

- Espace polyvalent Guy Poulou
- Tout public à partir de 6 mois
- Sur réservation



©SO

Samedi 12 décembre à 18h

CINÉ-CONCERT

DE L'ESTUDIANTINA

Un voyage musical au cœur des grands classiques de l'animation FR

Et si les fêtes de Noël étaient l'occasion de retomber en enfance ?
Les cinquante mandolines et guitares de l'Estudiantina de Ciboure prennent place sur scène pour faire revivre en musique quelques-uns des plus grands classiques du cinéma d'animation.

Un ciné-concert plein de souvenirs, de mélodies et d'émotions, à vivre en famille ou entre amis.

- Chapelle du CIAP Les Récollets - Errekoletoak
- Tout public
- Sur réservation





Mardi 15 décembre à 19h30

PP PROJECT

COMPAGNIE LES INVOLTES (CHIRAC-BELLEVUE - 19)

Une fable tendre, entre musique et marionnettes

Sans parole

Un vieil homme vit seul dans son atelier jusqu'au jour où un oiseau surgit d'un livre et vient bouleverser son quotidien. Commence alors une aventure pleine de tendresse où l'on apprend à voler, à grandir et parfois à laisser partir.
Avec des marionnettes manipulées à vue, de la musique jouée en direct et un théâtre sans paroles, *PP Project* ouvre un espace où chacun peut inventer sa propre histoire et laisser libre cours à son imaginaire.

En coréalisation avec l'Office Artistique de la Région Nouvelle-Aquitaine

OFFICE ARTISTIQUE RÉGION NOUVELLE-AQUITAINE



©epm

- Chapelle du CIAP Les Récollets - Errekoletoak
- Tout public à partir de 6 ans
- Sur réservation

Vendredi 18 décembre à 18h

DÉFILÉ D'OLENTZERO

ZIBURU EUSKALDUN ET KASKAROTENEA IKASTOLA

Chants en basque

Ziburu Euskaldun et Kaskarotenea Ikastola vous donnent rendez-vous le 18 décembre à partir de 18h pour fêter Olentzero en chansons.
L'accueil à Mari Domingi se fera sur le port, puis le défilé se rendra sur le fronton et de là, parcourra les rues du vieux Ciboure. Si vous restez au chaud, tendez l'oreille et ouvrez vos fenêtres, accueillez Olentzero, le solstice d'hiver, porteur de bonnes nouvelles et de renouveau.

- Départ sur le port de Larraldenia
- Tout public
- Accès libre



Contes et lectures



Samedi 12 décembre à 9h30

LES PETITES OREILLES - BELARRI TTIPIAK

Lectures pour les tout-petits FR EU

Retrouvons-nous pour un réveil en douceur, tout en histoires et en comptines !
Les grandes sœurs et les grands frères sont les bienvenu.e.s !

Avec l'association Libreplume

Médiathèque François Rospide
0-4 ans
Sur inscription



Dimanche 13 décembre de 10h à 13h

LA BIBLIOMOBILE S'INVITE AU MARCHÉ DOMINICAL FR EU

Sous le chapiteau de La Fabrique Affamée, la médiathèque s'installe au cœur du marché dominical pour une matinée festive et conviviale. De 10h à 13h, petits et grands sont invités à partir à la découverte des traditions de Noël autour du monde, entre histoires, jeux et découvertes.
Au programme cette année : un temps de lecture pour partir à la découverte des traditions de Noël aux quatre coins du monde, puis un grand jeu de piste avec quiz pour les petits et grands globe-trotteurs. Et pour les plus chanceux, quatre lots surprise seront à gagner !

Un moment idéal pour voyager sans quitter Ciboure, partager en famille ou entre amis et découvrir, à travers les livres et le jeu, les différentes façons de célébrer Noël autour du monde.

Dimanche 13 décembre à 11h

Ce que la nuit éclaire, un spectacle conté d'Aurore Soudieux. À l'approche de la nuit la plus longue, la conteuse nous invite à un voyage autour du monde à la rencontre des lumières de la nuit. De la Suède au Japon, de l'Amérique du Nord-Ouest au Pays Basque, contes traditionnels et chants racontent la lumière qui disparaît, se cache, voyage et revient.
Un voyage poétique et sensoriel, tout public à partir de 4 ans, qui se prolongera par un atelier Eguzkilore : chaque enfant pourra fabriquer sa propre fleur-soleil, symbole de lumière et de protection dans la tradition basque.

- Chapiteau place du fronton
- Tout public
- Accès libre



Mercredi 16 décembre à 17h30

BALADE LITTÉRAIRE AVEC LIBREPLUME

FR EU

Avec l'association Libreplume, partez pour une balade littéraire bilingue placée sous le signe du voyage. Au fil du chemin, les textes en français et en euskara se succèdent, se répondent et invitent petits et grands à explorer de nouveaux horizons.

Une promenade entre histoires, paysages et imaginaires, où le plaisir de marcher se mêle à celui d'écouter.

Et pour éclairer le chemin, n'hésitez pas à venir avec votre lanterne, fabriquée lors de l'atelier du 2 décembre... ou simplement apportée de chez vous !

- Départ devant le chapiteau place du fronton
- Tout public
- Sur inscription



Un Noël créatif et participatif

LE PASSEPORT DES FESTIVITÉS DE NOËL

Cette année, les festivités se vivent comme un véritable voyage : spectacles, ateliers et rendez-vous deviennent autant d'étapes à découvrir et à collectionner.

COMMENT ÇA MARCHE ?

1. Récupérez votre passeport
Votre passeport est disponible à partir du 2 novembre au service Culture, Patrimoine et Vie associative, ou lors des premiers rendez-vous des festivités.

2. Partez à l'aventure
Emportez-le avec vous à chaque spectacle ou atelier auquel vous participez.

3. Collectionnez les tampons
À chaque étape, présentez votre passeport aux organisateurs pour recevoir le tampon officiel correspondant.

4. Tentez de tous les collectionner !
À la fin des festivités, la personne qui aura réuni le plus de tampons remportera un lot !




Mercredi 2 décembre à 14h

Atelier
UNE LANTERNE POUR VOYAGER FR

En prévision de la déambulation littéraire de Libreplume le 16 décembre, ou simplement pour le plaisir de créer, venez donner une seconde vie à de vieilles cartes routières ! Découpez, pliez, assemblez et transformez ces cartes d'hier en une petite lanterne lumineuse, comme une invitation à prendre le chemin de l'imaginaire.

Une création originale et poétique pour éclairer les fêtes.



Médiathèque
Familles
Sur inscription

Samedi 5 décembre à 10h30

Atelier
L'ESCALE GOURMANDE FR

Partez à la découverte des saveurs du monde !
Notre cheffe vous invite à découvrir quelques recettes inspirées d'ailleurs et à partager ses astuces pour les reproduire facilement chez vous.
Un atelier gourmand et convivial pour découvrir de nouvelles saveurs, mettre la main à la pâte et repartir avec quelques secrets pour surprendre vos convives à la maison.

- Chapiteau place du fronton
- Familles et enfants à partir de 7 ans
- Sur inscription



Samedi 5 décembre à 15h

Atelier
OFFRIR AUTREMENT FR EU

Partez à la découverte du Japon et de l'art du furoshiki !
Lors de cet atelier créatif et pratique, initiez-vous à l'impression tatakizomé et découvrez comment un simple carré de tissu peut se transformer au gré des pliages et des nouages.

Une invitation à voyager, créer et apprendre à emballer autrement.



- Chapiteau place du fronton
- Familles et enfants à partir de 7 ans
- Sur inscription

Mercredi 9 décembre à 10h

Atelier
MON LUTIN DE NOËL FR




Envie d'une décoration de Noël originale et faite main ?
Venez fabriquer en famille vos petits lutins en corde de coton !

Un moment à partager en famille pour préparer les fêtes et repartir avec une décoration réalisée par vos soins.

- Chapiteau place du fronton
- Familles et adultes
- Sur inscription

Mercredi 9 décembre à 15h



Atelier
UN NOËL SOUS CLOCHE FR

Cet hiver, créez votre propre petit monde enchanté !
Lors de cet atelier créatif, composez une scène de Noël miniature sous une élégante cloche de verre.

Une décoration poétique et intemporelle à personnaliser selon vos envies et à installer fièrement sur votre table de fête.

- Chapiteau place du fronton
- Familles et adultes
- Sur inscription



Jeudi 10 décembre à 19h

Afterwork
QUIZ DES VOYAGEURS GOURMANDS FR

Testez en équipe vos connaissances sur le monde !
Questions, découvertes et défis sensoriels rythmeront ce quiz où vos papilles et vos sens seront mis à rude épreuve.

À vous de jouer pour relever les défis !

- Chapiteau place du fronton
- Adultes
- Sur inscription



Samedi 12 décembre à 15h

Atelier
CRÉATION D'UN CARNET DE VOYAGE FR


Un voyage peut aussi se raconter, se dessiner et s'inventer.
Venez créer un carnet de voyage à partir d'un périple vécu, d'un voyage rêvé ou d'une destination encore en projet.

Écriture, collage, dessin, anecdotes ou impressions personnelles : chacun pourra composer un carnet à son image et laisser libre cours à sa créativité.

Apportez votre carnet, des photos imprimées, des cartes ou tout autre élément qui évoque votre destination.

- Chapiteau place du fronton
- Familles et enfants à partir de 8 ans
- Sur inscription







Mercredi 16 décembre à 10h

Atelier


PIMP TON PULL DE NOËL FR

Et si votre vieux pull devenait le plus beau des pulls moches de Noël ? Sortez un pull, un gilet, un sweat ou même un T-shirt oublié au fond du placard et venez lui offrir une seconde vie !

Les bénévoles de l'association Patch' y Coud vous transmettront leurs savoir-faire et leurs astuces de customisation pour transformer votre vêtement selon vos envies : motifs, couleurs, détails décalés...

Un atelier créatif, participatif et éco-responsable pour revisiter le traditionnel pull moche de Noël et repartir avec une pièce vraiment unique.

Chapiteau place du fronton
Familles et enfants à partir de 5 ans
Sur inscription



Mercredi 16 décembre à 15h

ATELIER

MISSION MARS FR

Enfilez votre combinaison d'astronaute et devenez, le temps d'un atelier, une équipe d'ingénieurs spatiaux !
Votre mission : programmer un robot explorateur capable de parcourir les
paysages de Mars et de franchir ses cratères.

Un défi ludique et immersif où logique, coopération et programmation seront vos meilleurs alliés pour mener votre mission à bien.

Chapiteau place du fronton
Familles et enfants à partir de 7 ans
Sur inscription



Un Noël féerique pour tous

À Ciboure, la magie de Noël se partage avec tous les publics ! Cette année encore, la programmation sort des lieux habituels pour aller à la rencontre des enfants, des seniors et des publics accompagnés par le CCAS. Spectacles et ateliers viennent ainsi à la rencontre des publics dans différents lieux de la ville.

LES ÉCOLES

Tous les élèves de maternelle et d'élémentaire de Ciboure profiteront cette année encore d'un parcours artistique spécialement imaginé pour les fêtes de Noël.

Une façon de découvrir le spectacle vivant et de célébrer ensemble la fin d'année !

LE CLUB IDUSKI EDERRA

Les seniors du Club Iduski Ederra partageront eux aussi plusieurs rendez-vous artistiques.

Au programme : le spectacle *La Grande Ourse* le 4 décembre à 14h30, le spectacle *PP Project* le 15 décembre à 14h30, et un atelier de customisation d'une tasse de Noël avec Manana Brodway le 18 décembre à 14h30.

LE CENTRE DE LOISIRS

La compagnie Sans Gravité ira directement à la rencontre des enfants du centre de loisirs pour présenter le spectacle Lâcher de magicien.ne.s, le 9 décembre à 14h.

LA CRÈCHE MARIE FLEURET

Les tout-petits ne seront pas en reste !

Les enfants de la crèche Marie Fleuret pourront découvrir le spectacle *SO* le vendredi 11 décembre à 9h, pour une première expérience artistique autour des sons, des matières et du mouvement.

LE NOËL SOLIDAIRE DU CCAS

Dans le cadre du Noël solidaire, le CCAS accueillera à son tour la compagnie Sans Gravité le 9 décembre à 16h.

Un rendez-vous placé sous le signe du partage, pour que les fêtes soient un moment de convivialité pour tous.

INFOS PRATIQUES ET RÉSERVATIONS

Toute la programmation de Noël est gratuite.
Chaque année, la programmation rencontre un grand succès. Afin de permettre à chacune et chacun de profiter de ces rendez-vous dans les meilleures conditions, les réservations ouvriront simultanément le vendredi 30 octobre sur le site de la Ville de Ciboure.

Pour permettre au plus grand nombre de participer aux ateliers, chaque famille peut réserver jusqu'à 3 ateliers. Pensez à réserver uniquement les places dont vous avez réellement besoin.

Pour tous les ateliers, les enfants doivent être accompagnés d'un adulte.

Et pour prolonger les moments de partage, boissons et petite restauration seront offertes au chapiteau du fronton et à l'espace polyvalent à l'occasion de tous les rendez-vous.

COMMENT RÉSERVER ?

Par téléphone : 06 10 75 45 61
Par email : animations@mairiedeciboure.com
En ligne : https://billetterie-ciboure.mapado.com/

OÙ ET QUAND TROUVER LE SERVICE CULTURE, PATRIMOINE ET VIE ASSOCIATIVE ?

Les lundi, mardi, mercredi et vendredi
de 8h15 à 12h

Place Camille Jullian
Bât. Denak Batean – 2ème étage
64500 Ciboure

culturecibourre
www.mairie-ciboure.fr
www.ziburuko-hiria.eus

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462
Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463
Image libre de droit : Magnific

Eguberri
DA ZIBURUN



04/12 > 16/12

Eguberri da Ziburun !

Egunak laburtu eta negua iristen denean, Ziburuk une bero bat irekitzen du jendartean elkartzeko, partekatzeko eta harritzeko.

Urte amaierako oporrak hurbiltzen direnean, sorkuntza artistikoak inoiz baino gehiago hartzen du protagonismoa adin guzientzako eskaintzekin. Musikak, txotxongiloak, ipuinak eta magiak markatuko dute garai berezi hau, bidaiatzera, mundu errealak eta irudizkoak esploratzera eta harridurari askatasuna ematera gonbidatuz.

Aurten, bidaia mugarik gabekoa izango da: istorioen, irudien, soinuen eta topaketen bitartez eginiko bidaia. Haur ttipietatik hasi eta helduetaraino, bakoitzak bere bidea aurki dezake, denbora hartu dezake deskubritzeko, sortzeko, amets egiteko edo, besterik gabe, une bat elkarrekin partekatzeko.

Utzi zaitez gidatzen eta gelditu zaitez Ziburun Eguberria modu desberdin batean ospatzeko: familiarekin, lagunekin eta, batez ere, jakin-min eta irudimen dosi on batekin.

Eneko Aldana-Douat
Ziburuko auzapeza

Emilie Dutoya,
Kultura, ondarea eta elkarte biziaren ardura duen axuanta

Egutegia

Astear. 12/02	14:00	Bidai-linternen sorkuntza tailerra	Mediateka	FR
Osti. 12/04	18:30	Oscar Fou konpainiaren *La Grande Ourse* ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	FR
Larun. 12/05	10:30	Geldialdi gormanta	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	FR + EUS
Larun. 12/05	15:00	*Beste opari mota bat tailerra*	Karpa	FR
Asteaz. 12/09	10:00	Nire Eguberriko iratxoa tailerra	Karpa	FR
Asteaz. 12/09	15:00	Eguberria ezkila baten azpian tailerra	Karpa	FR
Asteaz. 12/09	18:00	Sans Gravité konpainiaren *Lâcher de magicien.ne.s* ikuskizuna	Karpa	FR
Oste. 12/10	19:00	Lan osteko *Bidaiari gormantentzat* galdetegia	Karpa	FR
Larun. 12/12	9:30	Les petites oreilles – Belarri ttipiak	Mediateka	FR + EUS
Larun. 12/12	10:00	LagunArte konpainiaren SO ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa	Mutua
Larun. 12/12	15:00	Bidai kaieren sorkuntza tailerra	Karpa	FR
Larun. 12/12	18:00	Estudiantina-ren eskutik zinema-kontzertua	Errekoletoak - Les Récollets CIAS kapera	FR
Igan. 12/13	10:00 -13:00	Liburutegi ibiltaria	Karpa	FR + EUS
Igan. 12/13	11:00	Aurore Soudieux-en *Ce que la nuit éclaire* ipuina	Karpa	FR
Astear. 12/15	19:30	Les Involtes konpainiaren *PP Project* ikuskizuna	Errekoletoak - Les Récollets CIAS kapera	Mutua
Asteaz. 12/16	10:00	*Apaindu zure trikota* tailerra	Karpa	FR
Asteaz. 12/16	15:00	*Misioa: Marte* tailerra	Karpa	FR
Asteaz. 12/16	17:30	Libreplume-rekin literatura ibilaldia	Abiadura karparen aurrean	FR + EUS
Osti. 12/18	18:00	Olentzeroren desfilea	Larraldenia portutik irteera	EUS

Amets egiteko eta harritzeko ikuskizunak



Abenduaren 4a, ostirala, 18:30etan

LA GRANDE OURSE

OSCAR FOU KONPAINIA (VIVONNE – 86)

Haur zein helduentzat abesti jostagarriak FR

La Grande Ourse zerura begiratu eta irudimenaren eremura bidaiatzera gonbidatzen gaituen konstelazio bat da. Babeslea, samurra eta basatia den figura ere bada. Abesti jostalari eta poetikoen bidez, Oscar Fou-k haurtzaroaren galdera handiak aztertzen ditu, umorez eta leuntasunez: ametsak, beldurrak, besteekiko harremanak, maitasuna eta mundu bizidunarekin dugun lotura.

Familiarekin partekatzeko kontzertua, samurtasuna, fantasia eta poesiaren artean.

OARArekin batera ekoitzita

- Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
- 5 urtetik aurrera, familientzat kontzertua
- Izena ematea beharrezkoa



©Richard Sammut

Abenduaren 9a, asteazkena, 18:00etan



LÂCHER DE MAGICIEN.NE.S

SANS GRAVITÉ KONPAINIA (TOULOUSE – 31)

Gertuko magia eta poesia FR

Publikoaren artetik ateratzen dira, ilea argiekin apaindurik eta errealitatearen pertzepzioa astintzeko prest. Magia hurbilaren, umorearen eta poesiaren artean, Sans Gravité konpainiako magoek eguneroko espazioak, dena posible den jolas-parke batean bihurtzen dituzte.
Ikuskizun interaktibo eta harrigarria, harritzeko dugun gaitasuna berraurkitzera eta, ukitu arin batekin, zer sinestea aukeratzen dugun zalantzan jartzera gonbidatzen gaituena.

- Frontoiko plazako karpan
- Publiko guzia
- Izena ematea beharrezkoa





© Virginie Richard

Abenduaren 12a, larunbata, 10:00etan

SO

LAGUNARTE KONPAINIA (LA BASTIDE CLAIRENCE - 64)

Bizidunaren muinera musika eta zentzumen bidaia bat

Zer gertatuko litzateke paisaiek ahotsa balute? *SO* ikuskizunarekin, LagunArte konpainiak musika eta zentzumen-esperientzia bat eskaintzen du, non soinuek, ahotsek, materialek eta mugimenduek etengabeko eraldaketan dagoen mundu bat irudikatzen duten.
Mendi, oihan eta ozeanoen artean, gazteak eta helduak bizitzaren bihotzera bidaia sentikor batera gonbidaturik daude, non izakiak eta paisaiak elkarri erantzuten dioten eta elkarrekin eraldatzen diren.

- Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
- 6 hilabetetik aurrerako publiko guzia
- Izena ematea beharrezkoa

Mutua



©SO

Abenduaren 12a, larunbata, 18:00etan

ZINE-KONTZERTUA

ESTUDIANTINA-REN ESKUTIK

Animaziozko klasikoen bihotzean zehar bidai musikala FR

Eta Eguberria haurtzarora bueltatzeko aukera balitz? Ziburuko Estudiantina-ren berrogeita hamar mandolina eta gitarra igoko dira eszenatokira animaziozko zinemaren klasiko handienetako batzuei musikaren bitartez bizia emateko.

Oroitzapenez, melodiaz eta emozioz beteriko zinema-kontzertua, familiarekin edo lagunekin bizitzeko

- Errekoletoak - Les Récollets CIAS kapera
- Publiko guzia
- Izena ematea beharrezkoa



ESTUDIANTINA CIBOURE

Abenduaren 15a, asteartea, 19:30etan

PP PROJECT

LES INVOLTES KONPAINIA (CHIRAC-BELLEVUE - 19)

Alegia samurra, musika eta txotxongiloak batuz

Mutua

Agure bat bere lantegian bakarrik bizi da, liburu batetik txori bat atera eta bere eguneroko bizitza itzulipurdikatzen duen egunera arte.
Orduan, hegan egiten, hazten eta batzuetan askatasuna ematen irakasten duen abentura samur bat hasten da.
Begi bistan manipulaturiko txotxongiloak, zuzeneko musika eta hitzik gabeko antzerki esperientzia batekin, PP Projectek espazio bat sortzen du non bakoitzak bere istorioa asmatu eta bere irudimenari askatasuna eman diezaioken.

OARArekin batera ekoitzita

OFFICE ARTISTIQUE RÉGION NOUVELLE-AQUITAINE



©epm

- Errekoletoak CIAS - Les Récollets kapera
- 6 urtetik aurrerako publiko guzia
- Izena ematea beharrezkoa

Abenduaren 18a, ostirala, 18:00etan

OLENTZERO DESFILEA

ZIBURU EUSKALDUN ETA KASKAROTENEA IKASTOLA

Abestiak euskaraz

Ziburu Euskaldun-ek eta Kaskarotenea Ikastolak, abenduaren 18an, 18:00etan hasita, Olentzero abestiekin ospatzera gonbidatzen zaituzte.
Mari Domingiri ongietorria portuan izango da, ondoren desfilea frontoira mugituko da eta handik, Ziburu zaharreko kaleetan zehar ibiliko da. Berotan gelditzen bazarete, arretaz entzun eta leihoak ireki itzazue; ongi etorri eman berri onen eta berritzearen eramailea den Olentzerori eta baita neguko solstizioari ere.

- Irteera Larraldenia portutik
- Publiko guzia
- Sarrera dohain



Ipuinak eta irakurketak



Abenduaren 12a, larunbata, 9:30etan

LES PETITES OREILLES - BELARRI TTIPIAK

Haurtxoentzat irakurketak FR EU

Elkartu gaitezen, istorio eta haur-kantaz osoturiko esnatze leun bat egiteko!
Neba-arreba handiak ongi etorriak dira!

Libreplume elkartearekin

- François Rospide mediateka
- 0-4 urte
- Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 13a, igandea, 10:00etatik 13:00etara

LIBURUTEGI IBILTARIA IGANDEKO MERKATURA DATOR FR EU

La Fabrique Affamée-ko karparen azpian, mediateka igandeko merkatuaren bihotzean kokatuko da jai giroan goiz atsegin bat igarotzeko. 10etatik arratsaldeko 1etara, haurrak zein helduak gonbidatuta daude, ipuinen, jolasen eta aurkikuntzen bitartez, mundu osoko Eguberriko tradizioak ezagutzera.
Aurtengo egitaraua: irakurketa saio bat mundu osoko Eguberriko tradizioak ezagutzeko, eta ondoren, pista joko handi bat, adin guzietako bidaiarientzat galdetegi batekin. Eta zorte gehien duten parte-hartzaileentzat, lau sari sorpresa zozketatuko dira!

Ziburutik irten gabe bidaiatzeko une aproposa, familiarekin edo lagunekin partekatzeko eta, liburuen eta jokoen bitartez, munduan zehar Eguberria ospatzeko modu desberdinak ezagutzeko.

Abenduaren 13a, igandea, 11:00etan

Ce que la nuit éclaire, Aurore Soudieux-en eskutik ipuin-kontaketa.
Gau luzeena hurbiltzen den heinean, ipuin-kontalariak munduan zehar bidaiatzera gonbidatzen gaitu gauaren argiak ezagutzeko. Suediatik Japoniara, Ameriketako iparmendebaldetik Euskal Herrira, ipuin eta abesti tradizionalek desagertzen, ezkutatzen, bidaiatzen eta itzultzen den argia kontatzen dute.
Bidaia poetiko eta sentsorial bat, 4 urtetik gorako guzientzat egokia, eta ondoren Eguzkilore tailer bat: haur bakoitzak, Euskal Herriko tradizioan, argiaren eta babesaren sinboloa den eguzki-lore bat eginen du.

- Frontoiko plazako karpan
- Publiko guzia
- Sarrera dohain



Abenduaren 16a, asteazkena, 17:30etan

LIBREPLUME-REKIN LITERATURA IBILALDIA FR EU

Libreplume elkartearekin batera eta “bidaia” lelopean, etorri zaitez literatur ibilaldi elebidun bat egitera. Bidean zehar, frantsesez eta euskaraz idatzitako testuak bata bestearen atzetik entzungo dira, elkarri erantzunez, gazteei eta helduei horizonte berriak esploratzera gonbidatuz.

Istorioen, paisaien eta irudimenaren artean eginiko ibilaldia, non ibiltzearen plazera entzutearen plazerarekin elkartzen den.

Eta bidea argitzeko, ekarri ezazu zure linterna, abenduaren 2ko tailerrean egindakoa... edo etxetik ekarritakoa besterik gabe!

- Abiadura Frontoiko plazako karparen aurrean
- Publiko guzia
- Izena ematea beharrezkoa



Eguberri sortzaile eta parte-hartzailea

EGUBERRIKO BESTEN PASAPORTEA

Aurten, bestak benetako bidaia gisa biziko dira: ikuskizunak, tailerrak eta ekitaldiak ezagutzeko eta biltzeko eszenatoki bihurtuko dira.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

1. Eskuratu ezazu zure pasaportea
Zure pasaportea azaroaren 2tik aurrera eskuragarri dago Kultura, Ondare eta Elkarte Bizitza sailean, edo bestetako lehen ekitaldietan.

2. Irten zaitez abenturan
Ekarri ezazu zurekin parte hartzen duzun ikuskizun edo tailer bakoitzera.

3. Bildu itzazu zigiluak
Urrats bakoitzean, aurkeztu iezaiezu zure pasaportea antolatzaileei ekitaldiari dagokion zigilu ofiziala eskuratzeko.

4. Saia zaitez denak biltzen!
Besten amaieran, zigilu gehien duen pertsonak sari bat eramango du!




Abenduaren 2a, asteazkena, 14:00etan

Tailerra
BIDAI-LINTERNA SORKUNTZA FR

Abenduaren 16an Libreplume elkartearen literatura-ibilaldiaren karietara, edo besterik gabe sortzeko plazeragatik, zatoz errepide-mapa zaharrei bigarren bizitza bat ematera! Moztu, tolestu, muntatu eta eraldatu mapa zahar hauek linterna ttipi eta argitsu batean bihurtzeko; irudimenezko bidaia batean sartzeko gonbidapena.

Bestak argitzeko sorkuntza original eta poetikoa.



- Mediateka
- Familiak
- Izena ematea beharrezkoa

Abenduaren 5a, larunbata, 10:30etan

Tailerra

GELDIALDI GORMANTA FR

Etorri zaitez munduko zaporeak ezagutzera! Gure sukaldariak nazioarteko sukaldaritzan inspiratutako errezeta sorta bat ezagutzera eta etxean erraz errepikatzeko aholkuak partekatzera gonbidatzen zaitu.
Tailer gormanta eta atsegina zapore berriak ezagutzeko, sukaldean aritzeko eta etxean zure gonbidatuak txunditzeko sekretu batzuk ikasteko.

- Guy Poulou erabilera anitzeko espazioa
- Familiak eta 7 urtetik aurrerako haurrak
- Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 5a, larunbata, 15:00etan

Tailerra

BESTE OPARI MOTA BAT FR EU

Zatoz Japonia eta furoshiki artea ezagutzera! Tailer sortzaile eta praktiko honetan ikasi ezazu tatakizome estanpazioa nola egiten den eta deskubritu ezazu nola eraldatu daitekeen oihal karratu soil bat tolestuz eta korapiloak eginez.

Bidaiatzeko, sortzeko eta opariak modu desberdinean biltzeko ikasteko gonbidapena.



- Frontoiko plazako karpan
- Familiak eta 7 urtetik aurrerako haurrak
- Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 9a, asteazkena, 10:00etan

Tailerra


NIRE EGUBERRIKO IRATXOA FR

Eguberriko eskuz eginiko apaingarri original bat egin nahi duzu? Zatoz zure familiarekin kotoizko sokazko iratxo ttipiak egitera!

Jarduera dibertigarria familian partekatzeko, besta denboraldia prestatzeko eta zuk zeuk egindako apaingarri bat etxera eramateko.

- Frontoiko plazako karpan
- Familiak eta helduak
- Izena ematea beharrezkoa

Abenduaren 9a, asteazkena, 15:00etan



Tailerra

EGUBERRIA EZKILA BATEN AZPIAN FR

Negu honetan, sor ezazu zure mundu ttipi xarmagarria! Sormen tailer honetan, konposatu ezazu Eguberriko eszenatoki ttipi bat beirazko ezkila dotore baten azpian.

Apaingarri poetiko eta denboragabea zure gustura pertsonalizatzeko eta besta garaian zure etxeko mahaian harro erakusteko.

- Frontoiko plazako karpan
- Familiak eta helduak
- Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 10a, osteguna, 19:00etan

Lan ostea

BIDAIARI GORMANTENTZAT GALDETEGIA FR

Aztertu ezazu taldean munduari buruzko zure ezagutza! Galderak, aurkikuntzak eta zentzumen-erronkak izango dira galdetegi honetan, non zure dastamena eta zentzumenak proban jarriko diren.

Zure txanda da erronkei aurre egiteko!

- Frontoiko plazako karpan
- Helduak
- Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 12a, larunbata, 15:00etan

Tailerra

BIDAI KAIERA BATEN SORKUNTZA TAILERRA

FR


Bidaia bat kontatu, marraztu eta asmatu ere egin daiteke. Zatoz iraganeko, ametsezko edo oraindik planifikatu gabeko bidai batean oinarritutako bidai kaiera bat sortzera.

Idazketa, collagea, marrazkia, istorioak edo inpresio pertsonalak: bakoitzak bere estiloa islatzen duen kaiera bat sor dezake bere sormenari bidea emanez.

Ekarri ezazu zure liburuxka, inprimatutako argazkiak, mapak edo zure helmuga gogorarazten duen beste edozer gauza.

- Frontoiko plazako karpan
- Familiak eta 8 urtetik aurrerako haurrak
- Izena ematea beharrezkoa







Abenduaren 16a, asteazkena, 10:00etan

Tailerra

APAINDU ZURE TRIKOTA FR

Eta zure trikot zaharra Eguberriko jertse itsusien artean ederrena bihurtuko balitz? Atera ezazu armairuaren atzealdean ahaztutako trikota, barnekoa, kirol-jertsea edo baita tixerta bat ere, eta eman iezaiozu bigarren bizitza bat!

Patch' y Coud elkarteko boluntarioek haien trebetasuna eta pertsonalizazio aholkuak partekatuko dituzte zure jantzia zure nahietara eraldatzeko: ereduak, koloreak, ezohiko xehetasunak...

Tailer sortzaile, parte-hartzaile eta ekologikoa Eguberriko trikot itsusi tradizionala berrasmatzeko eta pieza benetan paregabe batekin irteteko.

Frontoiko plazako karpan
Familiak eta 5 urtetik aurrerako haurrak
Izena ematea beharrezkoa



Abenduaren 16a, asteazkena, 15:00etan

Tailerra

MISIOA: MARTE FR

Jantzi ezazu zure astronauta jantzia eta bihurtu zaitez, tailer honen iraupenean, espazio-ingeniari talde bateko kide! Zure misioa: Marteko paisaia zeharkatu eta kraterrak zeharkatzeko gai den esplorazio-robot bat programatzea.

Erronka dibertigarri eta murgilgarria, non logika, lankidetza eta programazioa izango diren zure aliatu onenak zure misioa arrakastaz burutzeko.

Frontoiko plazako karpan
Familiak eta 7 urtetik aurrerako haurrak
Izena ematea beharrezkoa



Eguberri magikoak denentzat

Ziburun, Eguberriko magia denon artean partekatzen da! Aurten ere, egutegia ohiko tokietatik haratago doa, haurrengana, helduengana eta CCASek (Gizarte Ekintzako zentroak) laguntzen duten publikoarengana iristeko. Ikuskizunak eta tailerrak eskainiko zaizkie publikoari hiriko hainbat tokitan.

ESKOLAK

Ziburuko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasle guziek Eguberriko bestetarako bereziki diseinatutako egitarau artistiko batez gozatuko dute berriro ere.

Zuzeneko emanaldiak ezagutzeko eta ikasturte amaiera elkarrekin ospatzeko modu bat!

IDUSKI EDERRA KLUB-A

Iduski Ederra klubeko adinekoek ere hainbat ekitaldi artistiko partekatuko dituzte.

Egitaraua: *La Grande Ourse* ikuskizuna, abenduaren 4an (14:30), *PP Project* ikuskizuna, abenduaren 15ean (14:30), eta Eguberriko katilu pertsonalizazio tailerra Manana Broadway-rekin, abenduaren 18an (14:30).

ASTIALDI ZENTROA

Sans Gravité konpainiak *Lâcher de magicien.ne.s* ikuskizuna aurkeztuko die zuzenean aisialdi zentroko haurrei, abenduaren 9an (14:00).

MARIE FLEURET HAURTZAINDEGIA

Haur ttipienak ez dira kanpoan geldituko!

Marie Fleuret haurtzaindegiko haurrek *SO* ikuskizuna ezagutu ahal izango dute abenduaren 11n, ostirala, goizeko 9:00etan, soinuak, materiak eta mugimendua esploratzen dituen lehen esperientzia artistiko batean.

CCASEKO ELKARTASUN EGUBERRIA

Elkartasun Eguberria ekimenaren barruan, CCASek Sans Gravité antzerki konpainia hartuko du abenduaren 9an, arratsaldeko 4etan.

Partekatzean oinarritutako ekitaldi honek bestak guziontzako elkartasun garai bihurtzea du helburu.

INFORMAZIO PRATIKOAK ETA ERRESERBAK

Eguberriko egitarau guzia dohain da.

Urtero, egitaraua oso arrakastatsua da. Egitarau honetaz baldintza onenetan baliatzeko, erreserbak aldi berean irekiko dira urriaren 30ean (ostirala), Ziburuko hiriko webgunean.

Ahalik eta jende gehienek tailerretan parte hartu ahal izateko, familia bakoitzak gehienez 3 tailer erreserbatu ditzake. Benetan behar dituzun lekuak erreserbatu itzazu soilik.

Tailer guzietan, haurrak heldu batekin egon behar dute.

Eta elkarrekin pasatutako momentuak luzatzeko, ekitaldi guzietan, frontoiko karpan eta erabilera anitzeko gunean edariak eta pintxoak eskainiko dira.

NOLA EGIN ERRESERBA?

Telefonoa: 06 10 75 45 61
Mezu elektronikoa: animations@mairiedeciboure.com
Webgunea: https://billetterie-ciboure.mapado.com/

NON ETA NOIZ AURKITU KULTURA, ONDAREA ETA ELKARTE BIZITZA SAILA?

Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan,
8:15etatik 12:00etara

Camille Jullian plaza
Denak Batean eraikina - 2. solairua
64500 Ziburu

culturecibourre
www.mairie-ciboure.fr
www.ziburuko-hiria.eus

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462
Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463
Lizentzia libreko irudia : Magnific